

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak ibilgailu bat eman du Paris 365 jantokiarentzako

Beaumont kontseilariak egin dio entrega proiektu solidarioa kudeatzen duen Gizakia Herritar Fundazioari

Astelehena, 2018.eko azaroak 19

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilari María José Beaumontek ibilgailu baten entrega egin dio Gizakia Herritar Fundazioari, nagusiki Paris 365 proiektu solidarioagatik ezaguna dena; haren ordezkaritza zabala izan da bertan, Patxi Xabier Lasa lehendakaria, Myriam Gómez gerentea, Alex Remírez sukalde-arduraduna eta Dani Fernández sukaldeburua.



Beaumont kontseilaria, erdian, ibilgailuaren entregaren unean.

Nafarroako Gobernuak fundazioari emandako ibilgailua furgoi motakoa da, Citroën Jumper markakoa, NA5181-AV matrikula duena, eta 2000. urtekoa. Jantoki solidarioa eta Paris 365 jaki-toki solidarioa bideratzen diren elikagaiak bildu eta garraiatzeko erabiliko da.

Gizakia Herritar Fundazioa gizarte-intereseko irabazi asmorik gabeko entitate soziala da eta 2009az geroztik gizarte nafarreko pertsona ahulenen aldeko lana egiten du. Paris 365 jantoki solidarioa jarri zuen martxan, eta inauguratu zenetik, egunean euro baten truke eta "3 otordu egunean urteko 365 egunetan" lemapean, 250.000 bazkari eta afaritik gora eman ditu ekonomia-, osasun- edo gizarte-motiboengatik elikadura egoki bat izateko zailtasunak dauzkaten pertsoneri.

Nafarroako Gobernuaren Automobil-parkea Atala da Nafarroako Gobernuak daukan automobil-parkearen arduraduna, Barne Zuzendaritza Nagusiko Segurtasun Politiken Garapenerako Zerbitzuari adskribatua. Antzintasuna dela eta ibilgailu batzuk jada betekizun batzuetarako operatiboak ez direnean, baztertu egiten dira desegiteko, edo, egoera mekaniko onean badaude eta beste helburu batzuetarako berriz erabil badaitezke, eman egiten dira.

Ematen diren ibilgailuak jasotzeko eskaera egiten duen pertsona edo entitateak derrigorrean bete behar ditu Nafarroako Gobernuak exijitutako baldintzak, horien artean ibilgailua irabazi asmorik gabeko jarduera batera bideratzea.

Kontseilaria pozik agertu da donazioagatik, "pertsona askok

sufritzen duen egoera zaila arintzen lagunduko duelako".

Patxi Xabier Lasak eskerrak eman ditu bai bere izenean, bai fundazioaren izenean, eta bai "Paris 365 larrialdi-baliabideen erabiltzaile guztien izenean". Gainera, adoretu egin ditu kontseilaria eta Nafarroako Gobernua "ibilgailuen, altzarien, makinen edo erabiltzen ez den beste edozein materialen birziklatze- eta donazio-politikarekin jarraitzera, Nafarroan lanean ari diren irabazi asmorik gabeko entitateek horiek balia ditzaten".